



ZARAUZKO IKASTOLA
ESKOLA-KIROLA 2020/2021

14.- SAIOA
- BEHARREZKO MATERIALA: Zapi bana eta baloi bigun bat. (etxetik ekartzeko esan).
BEROKETA
“Izurritearen jolasa” [10 min]
Harrapatzaile bat izendatu eta honek eskua buruan eramango du norbait harrapatu bitartean. Norbait harrapatzean, harrapatzailea zena libre geldituko da eta harrapatua izan denak eskua ukitua izan den tokian eraman beharko du norbait harrapatu arte (sorbaldan, belaunean, sabelean, ipurdian,...).
ATAL NAGUSIA
“Azeri buztana” [20 min]
Bakoitzak zapi bat hartu eta galtzetan sartuta jarriko du atzeko aldean. Denak prest daudenean eskuak buruan jarriko dituzte, irakasleak “1, 2, eta 3” esatean, denek eskuak burutik kendu eta elkarri buztanak lapurtzen hasiko dira. Norbait buztana kentzen badiote, lurrean eseri beharko du. Bertatik jarraitu dezake buztanak lapurtzen (ipurdia lurretik altxa gabe). Buztan gehien lortzen dituen izango da irabazle. Lapurtutako buztanak, lurrean dauden lagunei oparitu ahal dizkiegu haiek berriz jolasera gehitzeko.
Arauak: -Ezin da norbere buztana eskuekin heldu edo paretaren kontra jarri besteek ez lapurtzeko.
Atsedenaldia ura edateko [3-4 minutu]
“Azeri, oilo eta sugeak” [20 min]
Talde osoa 3tan banatu. Azeriak, oiloak eta zizareak (edo nahi duten animalia aukeratu dezatela). Bakoitzari bere etxea izango den txoko bat zehaztu zelaian. Azerien taldeak , oiloak harrapatu beharko ditu, baina adi ibili beharko dira, zizareek, eurak harrapatu gabe. Oiloak , zizareen atzetik joango dira, aldi berean, otsoengandik ihes egin beharko dute. Zizareak , otsoak harrapatzera joango dira baina oiloak bistatik galdu gabe. Beste kideren bat harrapatzean, norbere etxera eraman beharko dute, ezin izango direlarik bide horretan harrapatuak izan. Besteen etxean preso daudenak askatzeko, talde bereko kideren baten bostekoa jaso behar da. Talde oso bat harrapatua izatean amaitzen da.
*** Alderak: Taldeak aldatzen joan gaitzeko dinamika mantentzeko. Partidetako bat luzatzen ari bada eta ez badira etxetik irteten, “etxeak desagertu dira” oihukatuta taldeak babesleku gabe geratzeko adostu dezakezue jolasa hasi aurretik.
<i>(jolasa ezagutzen dute. Taldeak osatu eta badakite zer egin behar duten)</i>



SALBATORE MITXELENA IKASTOLA
MARIA ETXE-TXIKI KALEA 14
20800 ZARAUTZ



LASAITZE FASEA [10 min]

“A, E, I, O, U”

Borobilean jarriko gara. Taldekide batek baloia eskuetan duela, esku batekin kolpatu eta airera botako du “A” oihukatzen duen bitartean. Lurrera erori aurretik, beste edonork, baloia jo beharko du eta “E” oihukatuko du. Horrela “U” hizkira iritsi arte. “U” oihukatzen duenak, baloia jotzean, lagun bati ematen saiatuko da. Inor kaleratu gabe jolastu ahal gara. Kaleratzera jolastu nahi badugu. Akats bakoitza egiten duenari hizki bat emango diogu “astoa” hitza (edo zuek aukeratutako beste edozein) osatzean, jokalaria hori kaleratua izango da. Baloia poliki botatzea eskatuko diegu, ahalik eta gehienetan “U” hizkira iristea delako helburua.

(baloi bigunena erabili jolas honetarako)